

71 bertsolarik eman zuten izena Gipuzkoako hirugarren bertsolari txapelketan. Sei kanporaketa, finalerdia eta finala jokatu ziren. Abenduaren 13an egin zen finala, Tolosan. Lazkao Txiki atera zen garaile, eta Txomin Garmendia bigarren. Gainerako bertsolariak Joxe Joakin Mitxelena, Joxe Intxausti, Patxi Etxeberria, Kaxiano Ibarguren, Koxme Lizaso eta Joxe Mari Lertxundi izan ziren. Orduko hartan, aurrekoan bezala, ez zuten parte hartu, ez Uztapidek ezta Basarrik ere, eurek hala erabakita.

1967

Eten luzearen abiapuntua

Euskaltzaindiak antolatutako azkeneko txapelketa izan zen. Istiluekin amaitu zen, eta horren eraginez denboraldi luzea igaro behar izan zen berriz ere txapelketa antolatzeko. 49 bertsolarik eman zuten izena, hiru urte lehenago antolatutakoan baino 12 guttiagok. Aurrekoetan bezala, Basarri eta Uztapide ez ziren lehiatu. Horiekin batera, aurkeztu gabe gelditu ziren Lazkao Txiki eta Joxe Joakin Mitxelena. Sei kanporaketa jokatu ziren finalerdiaz eta finalaz gain. Tolosan maiatzaren 4an jokaturiko finalean, Txomin Garmendia atera zen txapeldun, Jose Luis Gorrotxategiren aitzine-tik. Bertze zazpi bertsolari ere aritu ziren orduko finalean: Pedro Aizpurua

Lilibere, Patxi Etxeberria, Joxe Intxausti, Koxme Lizaso, Fermin Muñoa, Xanti Zabala Lexo eta Nikolas Zendoia.

1991

Peñagarikanoren txapela eta Jon Sarasuaren protesta


24 urteko hutsunearen ondotik, berriz ere antolatu zen Gipuzkoako txapelketa, Bertsolari Elkartearen eskutik, oraingoan (geroztikakoa da

Bertsozale Elkartearen izena). Gipuzkoan kantuan ziharduten bertsolari guztiek parte hartu zuten. Abenduaren 22an Donostian jokatu-tako finala aski ezaguna izan da gerora ere. Anjel Mari Peñagarikanok jantzi zuen txapela, eta Andoni Egaña izan zen bigarrena. Txapelketa hartan, Jon Sarasuak protesta egitea erabaki zuen txapelketak sorturiko zurrunbiloa zela eta —kartzelako gaiko hirugarren bertsoa aurrekoak ez bezlako neurrian bota zuen—. Hiru bertsolari horiekin batera bertze borts aritu ziren kantuan: Xabier Euzkitze, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua eta Martin Rezabal Olaso.

1995

Gazteei leku

Trantsizio garaiko txapelketatzat hartu izan da, hainbat bertsolarik parte hartzeari uko egin baitzion, gazteei leku gehixeago uzte aldera edo. Hala, Egaña, Lizaso, Sarasua, Peñagarikano eta Euzkitze bertzeak bertze, ez ziren plazartu. Aitor Mendiluzek jantzi zuen txapela, eta berarekin batera aritu ziren finalean Jexux Mari Irazu, Juan Joxe Eizmendi Loidisaletxe II.a, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Iñaki Zelaia, Jokin Sorozabal eta Joxe Ramon Elortza. Euskal Herriko txapelketarako baliogarria izan zen sailkapena.



JUANTXO EGAÑA

1991: Txapela, Anjel Mari Peñagarikanorentzat. Anjel Mari Peñagarikanok irabazi zuen 24 urteko etenaren ostean antolatutako lehendabiziko txapelketako. Ikusmin berezia sortu zuen txapelketak. Lehia handia piztu zen Peñagarikano, Sarasua, Euzkitze, Egaña eta Sebastian Lizasoren artean. Sarasuaren jokabideak zeresan franko eman zuen.



1995: Mendiluzek hartu zuen lekukoa. Gipuzkoako bertso eskoletan sortutako makina bat bertsolari gazteri leku egiteko antolatu zen txapelketa, eta horren harira, ez ziren aurkeztu, bertzeak bertze, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Xabier Euzkitze eta Anjel Mari Peñagarikano bera. Aitor Mendiluze gazteak hartu zuen lekukoa, argazkian ikus daitekeen bezala, Manuel Lasartek jantzitako txapelaren bidez.

Edo bueltaka eta bueltaka ibiliko zara etxe guztia janzteko...



...edo Inchaustira joango zara oso-osorik janzteko, egongelatik hasi eta logeletan bukatu

hil honetan
gela bat*
DOHAINIK
* Inchausti
Mobiliarion ikusgai

FINANTZAKETA
24
HILABETE
INTERESIK GABE



INCHAUSTI

Ezagut ezazu Gipuzkoako altzari aukerarik handiena eta gaurkoena

N-1, Errekalde, LASARTE-ORIA
Ternuako Arrantzaleak, 2. AMARA (ARCCOren ondoan)